

Sei hilabete atzera

Eguna iluntzen ari zen nire aurpegia treneko kristaletan islatuta ikusten nuenean, ispilu bat izango balitz bezala. Arraro ikusten nuen nire aurpegia, arraro ikusten nintzen kristal zikin horietan. Izan ere, uste dut normala dela, bidaia amaigabe batean murgilduta bainengoen tren zahar horretan. Tren hura zen merkeena, tren zahar eta desitxuratu hura, oso mantso joaten zen, sekulako bueltak ematen zituen toki anitzetatik barrena pasatuz eta gauean gidariak lo egin zezan geldirik egoten zen. Gure familiak ez zuen ni tren berri eta hobe batean joateko adina dirurik. Tren hartan ez nuen lagunik nire gauzak kontatzeko, ez libururik irakurtzeko, ez nuen ezer, eta tren herdoildu haren zarata entzuten hartzen ninduen loak, beti ere tren txartela eskuan ondo estututa nuelarik. Momentu eta egun haietan bidaia bukatzea eta behingoz ospitale horretara iristea besterik ez nuen gura, beste guztia berdin zitzaidan.

Neure burua ere ez dizuet aurkeztu oraindik, hau da hau fundamentua nirea. Nik Ariana izena dut eta hamahiru urte ditut. Buenos Airesen jaioa naiz, baina Curitiban bizi naiz orain dela hamar bat urtetik. Nahiko altua naiz, eta argala. Denak bezalakoa naiz, azala nahiko beltzarana, ilea beltza eta nahiko motza eta begiak marroiak.

Neure burua jadanik aurkeztu dizuet eta orain ni han zergatik nengoen kontatu behar dizuet eta honako hau zen ni tren zahar eta desitxuratu hartan egotearen arrazoiak:

Historia hau nire haurtzaroan hasi zen. Nik 2-3 bat urte izango nituen eta Argentinako Buenos Aireseko auzo langile eta behartsu batean bizi nintzen nire gurasoekin eta nire amonarekin batera, aitona nik hilabete gutxi batzuk nituenean hil zen eta. Nire gurasoek egun guztia lanean ematen zuten, lan eta lan, baina hala ere, jateko adina diru bakarrik irabazten zuten. Ni amonak zaintzen ninduen, ni nintzen bere kuttuna, eta aitonaren heriotzaz geroztik bere gauzarik handiena, nik betetzen nion poztasunez bihotza, berak nirea betetzen zuen bezalaxe. Nire gurasoek aberats batentzat egiten zuten lan, haren baratz eta soro izugarrietan, amak kontatu zidanez soro haiek amaiezinak ziren, izugarriak, bertan zeukaten lana bezala.

Ordurako denbora luzea zeramatzaten han lanean. Aberatsa zeharo aberastuta zegoen eta denbora zeraman buruan Buenos Aireseko auzo behartsu hartatik urbanizazio aberats batera bizitzera joateko ideiarekin. Halako batean bere pentsamenduak baieztatu egin zituen eta amestutako urbanizazio hartara bizitzera joan zen eta bere langileak langabezian geratu ziren.

Aberatsa etxe hartatik joan zenean tratu bat egin zuten auzokoek aberatsarekin, aberatsak denak langabezian utzi zituenenez auzoko guztiak luxuzko etxe hartan bizi ahal izango ziren, baina lehen hilabetean irabazten zuten soldataren seirena ordaindu beharko zioten aberatsari hilero. Denek onartu zuten tratua beste lanen bat bilatuko zutela pentsatuz.

Egunak aurrera zihoazen eta nire gurasoek ez zuten lanik aurkitzen, amonari bakarrik geratzen zitzaion dirua, baina berarentzat adina bakarrik zuen. Nire gurasoak hala nola moldatu ziren bost bat hilabete pasatxo etxe hartako lagunek utzitako diruarekin pasatzen genituen egunak. Sekulako zorrak zituzten nire gurasoek eta gainera langabezian zeuden. Han zituzten zorrak ordaintzeko sekulako komeriak izango zituztela jabetu ziren nire gurasoak.

Beste egun batzuk etxe hartan igaro zituzten beraien ihesaldia planifikatu bitartean. Amonari eta postari lana hartu zuen lagun bati, Ricardori, berri eman ondoren nora joango ziren adierazi zieten. Denak lo zeuden gau batean handik isilean ihes egin zuten. Han zituzten zorrak ahaztuz nirekin batera bizitza berria hasi nahi zuten, horregatik ihes egin zuten, handik urrun gauzak hobeto aterako ziren itxaropenarekin.

Egunak eta egunak pasa genituen ibiltzen, batzuetan norbaitek bere autoan hartu eta bidea errazten zigun arren. Buenos Aireseko auzo hartatik Curitiba-ko auzo bateraino iritsi ginen. Curitiba, Paraná Brasilgo estatuko hiriburua da eta han nire gurasoak seguru sentitu zirenez han geratu ginen. Baina Curitiba-raino iristeko izugarritzko ahaleginak egin behar izan zituzten:

Buenos Aireseko kosta aldetik iparralderantz abiatu eta Fray Bentos herrira iritsi ginen, Uruguay-tik oso gertu dago. Gero hortik Tacuarembó-rantz (Uruguay) joan eta iparralderantz jarraitu genuen Brasilerraino. Behin Brasilera iritsita Porto Alegretik barrena joanda Curitiba-raino iritsi ginen. Hemen oso sinplea dirudien arren, baieztatzen dizuet benetan alderantzizkoa dela.

Curitiban sekulako lan eskaintza zegoen eta nire gurasoei erraza egin zitzaion lana aurkitzea. Aitak baserri batean aurkitu zuen lana soja lantzen eta amak berriz gauean, etxe bateko umeak zaintzen egiten zuen lan, beren gurasoak lanean zeuden bitartean, beraz, egunez amak zaintzen ninduen eta gaua berriz aitarekin igarotzen nuen.

Etxetxo polit bat genuen bertako auzo handi batean eta esan behar dizuet hara iritsi ginen lehenengo egunetik denek oso ondo tratatu gintuztela, lagun asko genituen. Denak ere oso atseginak eta jatorrak, guregatik edo beste edozeinengatik edozer gauza egingo luketela iruditu zitzaidan lehenengo egunetatik.

Hango bizimodura segituan ohitu ginen eta oso ondo bizi ginen, pozik, gainera ez zitzaigun ezer falta, denetik geneukan. Urteak igaro ziren eta guk beti bezala jarraitzen genuen, zoriontsu. Baina gure zoriona neguko egun triste eta euritsu batean amaitu zen eta ez eguna tristea zelako, baizik eta bisita bat izan genuelako. Eta ez edozeinen bisita, Ricardo etorri zen, Buenos Aireseko etxe hartan gurekin bizi zen postaria, eta zortzi bat urte bera ikusi gabe egon ondoren nire gurasoek zorionez hartu zuten gure

etxean. Baina Ricardo haraino ez zen guri bisita bat egitera etorri, ezta berri onak ematera ere, zerbaitegatik zetorren. Hizketaldi luze bat eduki ondoren esan beharreko berri txarra esatera ausartu zen. Nire amona maitea La Plata–ko ospitale batean zegoen eta zirudienez nahiko larri. Horregatik ni hara joatea nahi zuen momentu txar hartan berari bultzadatxo bat ematera, berari laguntzera. Hori esan ondoren, agurtu eta presaka abiatu zen gure etxetik.

Erabakita zegoen. Amona bisitatzeko La Plata–rantz zihoan tren zahar bat hartuko nuen hurrengo egunean eta aste bat edo pixka bat gehixeagoren buruan han izango nintzen amona bisitatzeko.

Hau ere badakizue, orain dela hilabete batzuk bizi nuen historia kontatzen jarraituko dut.

Halako goiz batean ahots ezezagun batek esnatu ninduen. Treneko leihotik begiratu eta eguraldia ni neu baino tristeago zegoela jabetu nintzen. Nire ezkerretara begiratu eta hiru gizon zaharren aurpegia ikusi nuen. Gizonen janzkera ikusitakoan beldurra sartu zitzaidan eta hotzikara batez gorputz guztia hoztu zitzaidan. Baina beraien elkarriketa entzuten jarri nintzenean, oso gizon jatorrak iruditu zitzaizkidan:

-Eguerdi alderako La Platan izango gara.-zihoen batek.

-Lehenago iritsiko ote gera,bestela!-besteak.

-Ez ezazue horregatik ere diskutitu, mesedez!-hirugarrenak hori esandakoan isiltasuna bagoiaz jabetu zen.

Orduan hirurak aurpegia nire alderantz jiratu zuten eta nik badaezpada ere lo itxurak egin nituen.

Eguerdi aldera jaitsi nintzen tren hartatik (lehenengo gizonak arrazoi zuen). Gero jendeari galdezka bertako ospitalerainoko bidea egin nuen, ez zegoen tren geltokitik oso urrun.

Ez nuen espero hori ikustea, ez nintzen inoiz ospitale batean egon, hura pelikuletakoa bezalakoa izango zela pentsatu nuen eta nahiko desilusionatuta geratu nintzen ikusi nuenarekin. Baina, aurrera jarraitu behar nuen, beraz, ospitalean sartu eta nire amona zenbatgarren gelan zegoen galdetu nuenean hau erantzun zidaten:

-Zure amona 103. gelan dago baina ez dut uste zuri asko komeni zaizunik hemen egotea eta are eta gutxiago bera ikustera joatea.

Gainera hori esan eta gero gustura geratu zela zirudien. Nazkante zikina. Baina, zergatik ez zitzaidan komeni? Ba, zer jakingo ote zuen nazkante horrek?

103. gelako atea jo nuen. Erantzunik ez. Barrura sartu nintzen. Han zegoen nire amona, bera ikusi eta begiak malkoz bete zitzaizkidan. Lo zegoen. Gero korrika joan nintzen beregana. Bat-batean esnatu egin nuen.

-Erotu egin al zara?-Galdetu zidan. Begi-bistan zegoen ez ninduela ezagutu.

-Amona, ez al nauzu ezagutzen, ni naiz, zure biloba, Ariana. –Hori esan nionean ezagutu ninduen.

Orduan besarkada handi bat eman zidan eta oso pozik jarri zen, denbora asko triste eta nahiko haserretuta eman ondoren inor ez zitzaiolako joaten bisitatzerara. Egun hartan egun osoan egon nintzen 103 zenbakiko gela horretan sartuta, nire amonaren ondoan. Kontu kontari pasa genuen egun guztia hitz eta pitz. Amona jadanik hobeto zegoen eta egun gutxi barru bidaliko zuten etxera. Gaua ere hantxe pasatu nuen, eta bere ondoan zegoen ohean egin nuen lo. Hainbeste denboraren ondoren erizain eta medikuek amona niregatik pozik ikusi zutelako utzi zidaten han lo egiten, eta hori eskertzekoa zen, niretzat ezin hobeto zegoen, zoragarria zen.

Hurrengo goizean bertako tabernara joan nintzen gosaltzera eta han ikusi nituen treneko hiru gizon haiek. Oso arraroa iruditu zitzaidan beraiek han ikustea, hirurak familiarik gabeko gizon solteroak ematen zuten eta.

Egun guztia pasa nuen horri bueltak eman eta bueltak eman, eta gizon haiek burutik kendu nahi nituen arren ezin nuen.

Aste bat pasa nuen ospitale hartan, nire amona etxera bidali arte eta zazpi egun haietan egunero ikusi nituen hiru gizonak.

Ospitaletik atera eta tren geltokirako bidea egin nuen eta behin hara iritsitakoan hango banku batean eseri nintzen. Pozik nengoen, amona sendatu zen eta bidali zuten etxera eta bidaia luzearen ostean poztekoa zen. Handik bost bat minutura hiru gizon haiek nire ondoko bankuan eseri ziren. Deitu egin ninduten. Eta beraiekin esertzeko esan. Nik beraien esana bete nuen. Orduan han eserita berriketaldi luze bat eduki genuen. Eguna iluntzen ari zen eta ez zetorren trenik, kezkatuta nengoen. Gaua egin zen eta geltokiko argiak piztu ziren. Beraiek joan beharra zeukatela esan zidaten eta nora nindoan ere galdetu zidaten. Nik Curitibara nindoala esan nien. Beraiek ere hara zihoazela esan eta beraiekin joateko esan zidaten. Aurpegian ere sartzen ez zitzaidan irribarrea atera zitzaidan, trenean joan beharrean beraiekin joango nintzen Curitibara.

Fidatzeko moduko gizonak iruditu zitzaizkidan eta beraiekin joatea erabaki nuen. Beraien furgonetan sartu nintzen. Pixka bat jan eta bidaiari ekin genion. Uste dut egun hartan segituan hartu nuela lo. Hurrengo goizean jaiki nintzenean gosaria furgonetako mahai gainean prestatuta nuen. Beraiek aurrean zeuden eta zirudienez oso lanpetuta bat maparekin, eta beste biak nondik joan ote beharko zuten eztabaidatzen. Egun onak eman eta gosaldutik egin nuen, baina inor ez zen jabetu oraindik esnatu nintzela eta gosaltzen ari nintzela. Oso gozoa zegoen gosaria, oso ondo tratatzen ninduten. Orduan konturatu ziren esna nengoela. Gero esan zidaten bazkaltzeko oso toki polit bat ezagutzen zutela, baso bat, dena zuhaitzez betea eta oso lasaia omen zen, inork ez omen zigun molestaturiko.

Eguerdi aldean iritsi ginen baso hartara. Oso polita zen ametsetako modukoa, telebistako dokumentaletan azaltzen zirenen antzekoa. Dena

prestatu genuen eta lurrean eseri ginen bazkaltzeko asmotan. Oilasko bular ondo handi bat jarri zidaten platerean, nik jan nezan, eta nik segituan jan nuen noski. Oso pozik nengoen momentu hartan, itxura txarra eduki arren oso ondo tratatzen ninduten hiruren artean, baina hala ere nire gurasoak ikusi nahi nituen, beraiekin egon, eta nire auzoko lagunekin. Bazkaltzen bukatu ostean esan zidaten, magiako truku asko zekizkitela eta ea uzten nien truku horiek egiten.

-Bai, bai, lasai, egin trukuak, gainera niri ere asko gustatzen zaizkit.-
erantzun nien pozik.

-Ados, jarri zure eskuak atzean-esan zidan hiruretako batek.

Nik kasu egin nion eta eskuak atzean jarri nituen. Orduan soka batekin lotu zizkidaten bi eskuak, estu-estu. Gero zuhaitz bateraino eraman eta han lotu ninduten. Ni pentsakor geratu nintzen eta galdetu nion neure buruari: Ze truku egingo ote didate?

Minutu batzuk beranduago konturatu nintzen hor ez nengoela ni truku batzuk egiteko. Ze tuntuna izan nintzen, nirekin nahi zuten guztia egiten utzi nien, eta beraiek ondo aprobetxatu zuten bai. Kabroiak, trenean nire ondoan joan, jator itxurak egin, ospitalean aste bat pasa nire atzetik, tren geltokiraino ere jarraitu zidaten, eta fidatzeko gizonak zirela niri pentsarazita, beraiek ere Curitibara zihoazela eta eramango nindutela esan. Gero niri printzesa bat izango banintz bezala tratatu eta azkenean beraiek egin nahi zutena lortu. Lortu zuten nahi zutena, eta okerrera nik utzi egin niela. Hasieran ez nengoen oker ez, itxura eta janzkera horrekin...

Gero esan zidaten dena zekitela niri buruz, eta nik hasieran kontatu dizueten historia bera kontatu zidaten. Eta esan zidaten nire gurasoengatik nengoela hor lotuta eta ez beraiengatik... Beste guztiaz ez naiz gogoratzen. Kontua zen nire gurasoek zor zuten guztia luxuzko etxeko "lagunei" eman arte ez nintzela hortik metro bat ere mugituko. Beraz beraien mugikorra utzi eta etxera deitzeko esan zidaten, gertatutako guztia kontatzeko. Amak hartu zuen telefonoa, (aita lanean zen) eta amona zer moduz zegoen eta hori dena galdetu zidan, nitaz ezer ere galdetu gabe. Gero nik gertatutako guztia kontatu nion eta diru guztia lehenbailehen lortzeko esan nien. Ni ezertaz ez kezkatzeko esan zidan, (bera ni baino kezkatuagoa zegoela uste dut) nahiko diru zeukatela aurreztua eta bizilagunei dena kontatutakoan denen artean diru pixka bat bilduko zutela ere esan zidan.

-Behar duzuen diru guztia bildutakoan telefono honetara deitu- eta zenbakia eman nion. Esaldi horrekin bukatu zen nire elkarrizketa, ederki gogoratzen dut.

Hiru bat egun igaro nituen han lotuta, gauetan hotzez hilko nintzela pentsatzera ere iristen nintzen. Egun haiek nire bizitzako luzeenak egin zitzaizkidan. Baina hirugarren egunean deitu zuen amak diru guztia lortu zuela esateko!!!

Orduan handik askatu eta furgonetan sartu ninduten berriz ere. Etxerako bidean zen furgoneta. Amak dirua lortu zuen eta etxera eramango ninduten. Orduan bai nengoela pozik.

Ez dakit zenbat egun pasako genituen furgoneta hartan, aurreko hiru egunetan ez nuen lorik egin, eta lasai nengoenez ia egun guztiak lo pasatzen nituen eta. Bat-batean amaren ahotsak esnatu ninduen. Etxean nengoen nire ohean. Aurren-aurrena ama besarkatu nuen. Hiru gizon nazkagarri haiei diru guztia eman ziela eta joan zirela esan zidan. Ez zitzaidala inoiz gehiago horrelakorik gertatuko eta amesgaizto guztia pasa zela esan zidan. Gero denetaz ahazteko kalera atera nintzen, eta harrigarria zen, auzo guztia zegoen ni kalera ateratzeko zain niri ongi-etorria emateko. Orain badakit zein izan zen nire egunik zoriontsuena, hura izan zen. Eta gaur betetzen dira sei hilabete egun hartatik. Lehenengo aldiz ausartu naiz historia kontatzera, eta harro nago.

Ariana
